

Handizkako salmenta

**Textil Hostelera
ezpeleta**Mahai-oihalak eta ehun industrialak
ostalaritza eta erresidentzietarakoBULEGOAK eta SALMENTA: Tf.: 943 76 28 77
San Lorenzo industrialdea, 1. / Faxa: 943 76 17 09 - BERGARA**LAKOTA**

C.B.

BURDINDEGIA

INDUSTRI HORNIDURAK

Amillaga, 1 - 3. Pab.
217 Posta Kutxa
Tel.: 943 76 01 96
Tel eta Faxe: 943 76 08 32

20570 BERGARA

**PEUGEOT
AUTOLEYMA**Haitz Iturri, 5 - S. Lorenzo auzoa Tel./Faxa: 943 76 09 30
20570 BERGARA Mugikorra: 607 403 156**GRACIAN**

Usaindegia - Mertzeria

Bidekurutzeta, 6. - Tf.: 943 76 10 25 - BERGARA

**BOLINTXO
OKINDEGIA**

San Juan auzoa, z/g © 943 76 16 93 BERGARA

**ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA**

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

Ibargarai, 12
943 76 40 50 tel.

20570 - BERGARA


**TORREALDAY**Bidekurutzeta, 6-2. ezk.
Tel./Faxa: 76 53 80
BERGARA

aholkulari-kontsultoreak

- ARLO FISKALA
- ARLO LABORALA
- KONTABILITATEA
- ASEGURUAK
- FRANKIZIAK
- AUDITORIAK
- ERRENTA AITORPENAK

Bergarako komertzio eta industrien zerbitzura

Email: bergara@atctorrealday.com / Tel.: 943 76 73 20 - Faxe: 943 76 55 39



JAGOBA MANTEROLA



Bergarako pentekosteetan ohiko zita da dantza txapelketa.

Fandangoa eta arin-arina lehian

Igandean izango da XXII. Euskadiko Dantza
Txapelketa 15 urtez azpiko bikoteentzat

JAIETAKO hirugarren egunean euskal kulturaren baitan ahaztu ezin daitekeen ekitaldia izango da. Izan ere, urtero bezala, igandean Bikote Gazteentzako XXII. Euskadiko Dantza Txapelketa jokatu da San Martin plazan. Bergarako txapelketa nagusian 15 urte-tik beherako bikoteek parte hartu ahal izango dute.

Aipatu txapelketa Bergarako Udalak eta Moises Azpiazu Dantza Taldeak antolatu dute, eta epaimahaia Euskal Dantzarien Biltzarrak izendatutako lau kidek osatuko dute. Moises Azpiazu Dantza taldeak urte asko daramatza dantzariak prestatzen; Dani Azpiazu dantza irakaslearen laguntzaz, hainbat bergarrek ikasten dute dantzan. Bihar jokatu den txapelketaz gain, irailean M. Azpiazu Memoriala ere antolatzen dute urtero Bergaran.

Biharko txapelketan bi zatitan banatuko da lehiaketa. Lehena, goizeko 12:00etatik aurrera. Parte hartzaileek trikitixaren doinuekin fandango eta arin-arin bat dantzatzeko dituzte. Puntu

Partaidetza anitza

Azpimarratzekoa da Euskal Dantzarien Biltzarra dela Euskal Herriko zazpi probintziak biltzen dituen federazio bakarra, eta horren erakusle izan ohi da antolatzen dituen txapelketetan lortzen duen partaidetza anitza. Iaz 30 bikote izan ziren Bergarako txapelketan: Lesaka, Lezo, Bergara, Zegama, Asteasu, Azkoitia, Azpeitia, Sestao, Errearteria, Hernani, Oiartzun, Lasarte, Lazkao eta Aramatik etorritako bikoteak. Aurten ere partaidetza anitza espero dute antolatzailuek.

gehien lortzen dituzten 15 bikoteek azken kanporaketa jokatu dute, toki berean eta arratsaldeko 17:30etan. Arratsaldean, dantzari gazteek fandango bat —Bergarako Udal Txistularien laguntzarekin— eta arin-arin bat —trikitilarien laguntzare-

kin— dantzatu beharko dituzte.

Bergararren papera.

Bergarako dantzariak oso maila altua erakutsi dute azken urteetako txapelketetan. Horren adierazgarri izan daiteke joan zen urtean hamabost lehenengoan artean Bergarako lau bikote sailkatu izana: Alex Torre-Josune Fernandez, Ion Urteaga-Miren Iraeta, Andoni Elorza-Iart Bolinaga eta Ino Arrillaga-Ibane Baseta. Hori gutxi balitz, Alex eta Josunek bigarren postua eskuratu zuten.

Sari ugari banatuko dira dantzari guztien artean. Lehen postua eskuratzen duen bikoteak garaikurra, txapela, zapia eta 20.000 pezeta jasoko ditu; garaikurra eta 15.000 pezeta bigarrenak; garaikurra eta 13.000 pezeta hirugarrenak.

Sari horietaz guztietaz gain, garaikur berezia emango zaio jantzi egokienari. Bide batez, euskal tradizioari jarraiki, egoki eta behar bezala azalduko dira lehiaketara.